



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Asteartea
2010-05-04

VIII. URTEA 1991. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Orexako jaietan haurrek puzgarriez gozatzeko aukera eduki zuten atzokoan. E. MAIZ

ASTEASUKO ELIZMENDI AUZOAN ETA OREXAN AMAITU DIRA JAIAK

AZKEN EGUNA Elizmendin herenegun igo zen Simon eta Orexan atzo bota zuen bere azken kukurrukua herriko oilarrak ospetsuenak 3

Joxantonio Ormazabal idazlea hilda aurkitu dute

TOLOSA Zegamarra bazen ere urteak zeramatzan Tolosan bizitzen; igandean aurkitu zuten hilotza Zegamako mendialdean 4

Kutxa Kultur Zirkuitua artista gazteekin

TOLOSA Ostiraletik igandera musikaz, zineaz eta arteaz gozatzeko aukera egongo da 2

Igandean izango da XVIII. Mendi Ibilaldi Neurtua

BERASTEGI Sei-zortzi ordu ingurukoa da; Berastegi, Leitza eta Elduain zeharkatuko ditu 7



Datozen maiatzaren 6, 7, 8 eta 9an Ibarra ospatuko den VII. Garagardo Festaren baitan, gau bakoitzerako bi pertsonentzako **afaria** zozketatuko dugu gure harpidedun ordaintzaileen artean.

saria eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira goizeko 9:30etatik 13:00etara



TXOKOA hitza

«Jende askok uste du oso aurreratuta gaudela berdintasunaren gaiarekin, baina ez da horrela»

JOXE MARI ARAKAMA » Berdinbideko kidea

Gizartea » Berdinbide elkarteak Berdintasunaren Aldeko I. Astea antolatuta du; herritarrak sentsibilizatzea da helburu nagusia.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren kontrako Gizonezkoen elkarteak Berdintasunaren Aldeko Lehenengo Astea antolatuta du. Hitzaldi, film, mahai inguru eta ibilbide batekin osaturiko egitaraua prestatu dute igandera bitarte, emakume eta gizonen

arteko berdintasunaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko helburuarekin. Joxe Mari Arakama Berdinbideko kideak «oraindik lan handia dagoela egiteko» dio.

Zer da Berdintasunaren Astearekin lortu nahi duzuen?

Talde bezala, gure aportaziotxo egin, gure egitasmoa eta helburua plazaratu eta Tolosan badagoela taldetxo bat berdintasunaren alde egin nahi duena jendeak jakitea nahi dugu, eta horrela herritarrak sentsibilizatu. Maskulinitate berria esaten dugunean zer esan nahi dugun, eta hori egunerokoan, lan munduan edota hezkuntzan az-

tertu nahi dugu. Hitzaldi eta mahai inguruen bidez jorratuko ditugu gai horiek, eta amaitzeko ekintza sinboliko bat egingo dugu.

'Bederatzi zubi berdintasunaren alde' izeneko.

Bai. Herriko zubiak hartu ditugu berdintasunaren irudi bezala, eta ibilbide bat osatu dugu horiek zeharkatuz.

Hainbat ikuspegi jorratuko dituzue, beraz.

Gaurko hitzaldiak hezkuntza munduarekin du lotura. Nahiko izeneko programa aurkeztuko dugu. Hau ikastetxeetan eskaintzen da, eta txikitatik tratatu txarrak

ekiditea du helburu. Unitate didaktikoak daude, eta norbere eza-gutzatik eta harremanetatik abiatuz, pixkanaka tratatu txarren aurkako sentsibilizazioa lantzen da. Lehen Hezkuntzan dauden gazteei zuzendurikoa da, eta 40 ikastetxetan behintzat lantzen dute dagoeneko. Bestalde, etxeko egitekoak nola banatzen diren aztertuko dugu bihar, eta ostiralean mahai ingurua izango dugu, sindikatu ezberdinekin, lan munduan emakumeak duen paperaren inguruan eztabaidatzeko.

Nori zuzendurikoak dira?

Ekitaldiak ez dira bereziki norbaiti

zuzenduak, baina gizonetakoak jongo balira pozutuko ginatke, nolabait eurei buruzkoak baitira.

Berdinbide ikusten al du bilakae-rarik, ala berdintasunerako bide-an asko dago oraindik egiteko?

Aurrerapauso batzuk eman dira, baina ez behar bezain beste. Gaztetxoan artean ustez garai batekoak ziren genero berdintasunarekin loturiko jarrerak azaltzen dira gaur egun ere, tratatu txarrak, esaterako. Beraz, horrek adierazten du lan eskerge dagoela egiteko oraindik. Gure asmoa horretaz jendea ohartaraztea ere bada, askok uste baitute oso aurreratuta gaudela berdintasunaren gaiarekin.

» GAUR

■ 20:00. Heziketa, berdintasunera-ko espazioa. Oier Alvarez Emakundereen Nahiko programako saioen dinamizatzailearen eskutik. Kultur Etxean.

Kutxa Kultur Zirkuitua gurera iritsi da

Kultura » Ostiraletik igandera, musika, zinema eta artea izango da, «herriko artista gazteen lana jendaurrera ateraz».

I. TERRADILLOS

Kontzertuak, film laburrak, taile-rrak eta graffiti erakustaldiak izango dira, besteak beste, ostiraletik igandera Tolosan. Kutxak bultzatzen du Kultur izeneko ekimenak «Gipuzkoako sortzaile berrientzat adierazpen plataforma izateko» du helburu, eta era berean, «herriaren parte-hartzea bultzatu nahi du, herrian egiten dena ikusaraziz, eta herriari bizia emanez».

Kultur Zirkuituak Irunen ekin zion biderei. Maiatzean Tolosan egingo du geldialdia, eta datozen hilabeteetan Zarautzen, Donostian eta Oñatin izango da. Herri guztietan helburu bera izango du, hau da, «artista gazteei egiten dutena erakusteko aukera ematea». Baina, egitaraua osatzerako orduan, herri bakoitzeko errealitatea hartu dute kontuan, horretara egokituz.



Iban Lozano antolaketa taldeko kidea, Iñaki Altuna Kutxaren ordezkaria eta Andoni Iturzaeta kultur zinegotzia. I.T.

Atzo eginiko aurkezpenean Andoni Iturzaeta kultur zinegotziak ekimen honetarako Tolosa aukeratu izana eskertu zuen, hurrengo urterako ere horretara animatuz.

Musika eskaintza oparoa

Musikak hartuko du pisu handiena, eta askotariko estiloak izango dira entzungai, gainera. Hasteko, ostiralean gurean egiten den hip hopa ezagutzeko aukera izango da, Donostiako Yanu & Allin Beats eta Serie B ordiziarrekin.

Nacho Vegas bakarlarri asturia-

rra izango da ostiraleko hitzordu garrantzitsua. Folk eta rocka lantzen ditu, eta bakarka nahiz Las Esferas Invisibles taldearekin aritzen da. Manta Ray taldearen sortzailea izan zen. Rafael Berrio donostiarraren emanaldiaren ostean entzun ahaliko da Vegasen musika.

Bestalde, larunbata goizean taile-rrak izango dira eta gaztetxoek reggae musika ezagutu ahaliko dute. Arratsaldean bi talde tolosarren txanda izango da. Desordutan eta Peachy Joke, euren azken lanak aurkeztuko dituztelarik.

Graffitiak eta film laburrak

Guztia ez da musika izango, ordea. Ostiraleko irekiera saioan GKO Galeriarako graffiti egileak ariko dira, Dizebi beasaindarrak lagun dutela, Kultur Etxearen kanpoaldean.

Zinemak jarriko dio azken ukitua Kutxaren Kultur Zirkuituari, eskaintza bereziarekin, Kimuak euskal film laburren programaren baitako aukeraketarekin. Sei film labur izango dira ikusgai Topic-en, ordubete baino gehiagoko iraupenarekin.

» EGITARAUA

Maiatzak 7, ostirala

■ 19:30. Expo Kultur inaugurazioa, Kultur Etxean.

■ 19:30. Oppenning Hip Hop 100% Gourmet: Yanu & Allin Beats (Donostia) eta Seri B (Ordizia); eta GKO Galeriarako graffiti egileak erakustaldia Dizebirekin. Kultur Etxearen kanpoaldean.

■ 21:00. Nacho Vegas eta Rafael Berrioren kontzertua.

Maiatzak 8, larunbata

■ 10:00-20:00. Expo Kultur, Kultur Etxean.

■ 11:30. Planeta Reggae lantegi plastikoa 5 urteko haurrentzat, Maushaus-en eskutik, Kultur Etxean.

■ 12:30. Revolutionary Brothers taldearen kontzertua, Kultur Etxean.

■ 19:00. Desordutan eta Peachy Joke talde tolosarren kontzertua, Kultur Etxean.

Maiatzak 9, igandea

■ 10:00-20:00. Expo Kultur, Kultur Etxean.

■ 18:00. Kimuak film laburren aukera ikusgai Topic-en. *Ahate pasa, Amona putz, Marisa, Limoncello, Eramos pocos* eta *7:35 de la mañana* film laburrak emango dituzte.

@ Facebook. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Facebook sare sozialean ere dagoeneko badu bere ataria. Eskualdeko egunkariaren lagun eginez gero, zuzenean jaso ahal izango dituzu zure herriko azken albiste guztiak. Gero eta lagun gehiago atxikitu dira, eta jada beste modu batera jasotzen dute informazioa lagun horiek. Bestalde, egunkariaren webgunera, tolosaldeko-hitza.info, lotura zuzena du eta honen bitartez ere heldu zaitezke. Sar zaituzte gure sare sozialean ere.

www.tolosaldeko-hitza.info

KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ)
Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenentarako lan poltsa osatzeko.


Eskatzen

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baietikidea den euskara maila izatea

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma gizabaitabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztua, maiatzaren 10a baino lehen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Orexan eta Asteasun agur esan diete Santa Kruz jaiei

Jaiak » Udaberriko lehen jaiak pasa dira. Orexan atzo igo zuten Oilarra eta Asteasuko Elizmendi auzoan igandean egin zuten Simonen igoera.

ERREDAKZIOA

Maiatzeko lehen egunekin batera, gurean festa izan da nagusi. Eguraldiak asko lagundu ez badu ere, umore onak eta jaiak ez dute hutsik egin. Eskualdeko lehen jaiak Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan izan dira.

Orexarrak lau egunez jaietan murgilduta ibili dira eta atzo eman zieten amaiera Oilarren igoerarekin. Larunbat gaua luzea izan zen Orexan. Gabezin taldearekin dantzaldia eta ondoren, festarekin jarraitzeko Dj Bull izan zuten.

Igande goiza indarrak erreku-peratzeko izan zuten. Arratsaldea, herriko batukadaren erritmoan hasi zuten eta haurrek puzgarriak izan zituzten. Ondoren, bertso saioa izan zuten Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Sustra Colina bertsolariekin eta bertsoen ostean, afari merienda egin zuten. Ondorengo erromeria berri, Izer eta Aladier trikitilari-ekin izan zen.

Eguraldiak asko lagundu ez arren, atzoko Santa Kruz eguna herriko txistularien dianarekin hasi zuten. Ondoren, giro onean, auzoan arteko apustua egin zuten. Jarraian pintxo lehiaketa eta txa-

kolin dastaketa izan zituzten. Arratsaldean amaiera eman aurretik puzgarriak eta bizikleta xebreak izan ziren.

Herri kirolak Elizmendis

Asteasun aldiz, bi egun izan zituzten festan murgiltzeko. Igandean, lehenik eta behin, 11:30ean, Meza izan zuten Santa Kruz ermitan. Ondoren, hamaiketako ederra egin zuten Laja eta Landakanda trikitilari-ekin lagundurik. Eta bertaratutako en artean toka txapelketa egin zuten.

Eguerdian, bazkaltzeko tartea hartu ostean, 17:30ean, aizkolari eta harri jasotzaile gazteen eskutik herri kirol saioa izan zen ikusgai. Harri jasotzen Urtzi Telleria gaztea aritu zen eta aizkorian, Jokin Alkizalet eta Mikel Belauntzar aritu ziren. Herritar ugari bildu zen arratsaldeko saioa ikusteko asmoz. Herri kirolak bukatu ostean, haur eta helduen artean buruhandiak ibili ziren. Giroa alaitzeko, goizean bezala, Laja eta Landakandaren trikiti doinuak izan ziren. Iluntzeko bederatzietan, bezperan jaitsi zuten Simonen igoera egin zuten datorren urtera arte Elizmendiko festak agurtuz.



Igandean, besteak beste, herriko batukada taldea aritu zen. SARA GOMEZ



Igandean bezala, atzo herriko txiki-ekin, puzgarriak izan zituzten. Bizikleta xebreak ere frontoian ibili ziren. E. MAIZ



Igande arratsaldean, Asteasuko Elizmendi auzoan herri kirolak izan ziren, harri jasotzailea eta aizkolariak. SARA GOMEZ



Joxantoni Ormazabal ibarrakoa Uzturpe Ikastolan, 2006ko Liburuaren Egunean. HITZA

Joxantoni Ormazabal idazle zegamarra hilda aurkitu dute mendialdean

Tolosa » Haur eta gazte literaturako euskal idazle emankorrenetakoa Tolosan bizi zen.

ERREDAKZIOA

Joxantoni Ormazabal idazle zegamarra hilda aurkitu zuten igandean Zegamako mendialdean. Bere bila jardun ondoren, gauerdian topatu zuten erreskate taldeek gorpua. Herrizaingo Sailaren arabera erreskate arriskutsua eta lantsua izan zen.

Zegaman jaioa 1948ko uztaila-

ren 21ean. Literaturan haur eta gazteentzat lan emankorra egin zuen, ipuingintzan, kantagintzan edo bertso gintzan. Elkar argitaletxean editore lanetan ibili ondoren, laz erretiratu zen. Bere azken liburua iragan ostegunean aurkeztu zuen: *Ehun ipuin hitz gutxitan*.

Idazte obsesio

Leitzako Amazabal Institutuko ikasleek 2008an elkarriketa egin zioten Ormazabali.

Ikasleak: Hizkuntzarekin jolasteaz gain, idaztean zein helbururekin idazten duzu?

Ormazabal: Ez dut helburu han-

dirik. Gustuko dut idazte; obsesioa esango nuke: Barruan dudan zerbaitek adierazi beharra litzateke.

Ikasleak: Idazle lanetan, zein izan dira zure mementorik gozoenak? Zeintzuk gazienak?

Ormazabal: Ez ditut haingustuko liburuen aurkezpenak egitea, irrartira joan beharra eta halako kontuak. Hauexek ditut desabantailak. Badira abantaila ugari: mentu gozoenak, honelako hizketalditxoak, eskoletan jaso izan dudana harrera. Honelakoetan idazten jarraitzeko gogo bixi-bixi mantentzen da. Nik handitan bi gauza izan nahiko nuke: goizetan jostailu-saltzaille eta arratsaldetan idazle. Eta bukatzeko gogoratu idazteak kreaiz lana dela, sormenaren eskutik inbentzio txikia; eta honek niri satisfazioa dakarkit: Inimindad, Petrikulidat, Zirkulimirkulu, Trikulu Trak, Ekomen-dario, Txantxikulete, Iup!

» LANAK

Haur eta gazte literatura

- **Ehun ipuin hitz gutxitan.** 2010, Elkar.
- **Amaren titi-xorroak.** 2006, Elkar.
- **Aitona parapentean.** 2004, Elkar.
- **Antonio Bolas.** 2002, Elkar.
- **Hiztegi jolastia.** 2001, Elkar.
- **Bihotza zubi.** 2001, Elkar.
- **Josebiñe.** 2001, Elkar.
- **Tartalo.** 2001, Elkar.
- **Irri eta barre.** 2001, Elkar.
- **Kotti.** 2001, Elkar.
- **Ehuzango kaskarina.** 2000, Elkar.
- **Bi indar txiki inauterietan.** 2000, Elkar.
- **Koxmeren gezurrak.** 2000, Elkar.
- **Helikopteroa ikastolan.** 2000, Elkar.
- **Gorritxo eta Beltxiko.** 2000, Elkar.
- **Amona bizikletan.** 2000, Elkar.
- **Txorria zezenaren adar gainean.** 1999, Elkar.
- **Saturna.** 1999, Elkar.
- **Patxibus.** 1998, Elkar.
- **Azenario erraldoia.** 1998, Elkar.
- **Nola ibili munduan, ohetik jaiki gabe.** 1998, Elkar.
- **Txoko txiki txukuna.** 1998, Elkar.
- **Olentzeroren oparia.** 1998, Elkar.
- **Haizemari.** 1998, Elkar.
- **Zipritin.** 1996, Elkar.
- **Lazkao Txiki.** 1995, Elkar.
- **Kittano.** 1995, Elkar.
- **Hitzak jostailu.** 1994, Elkar.
- **Pernando Amezetarra.** 1994, Elkar.
- **Esaera zaharrak eta txiste berriak.** 1994, Elkar.
- **Maripertxenta.** 1993, Elkar.
- **Esaera zaharrak.** 1990, Elkar.
- **Txisteak.** 1990, Elkar.
- **Igarkizunak.** 1990, Elkar.
- **Honela bizi naiz ni.** 1986, Elkar.
- **Auto, asto tren.** 1986, Elkar.
- **Kaiolatik mendira.** 1986, Elkar.
- **Margolin.** 1983, Elkar.
- **Kiriko eta bere sendia.** 1989, Elkar.

Tolosa kantari ekimenak Baionakoarekin bat egingo du hilaren 22an

ERREDAKZIOA

Tolosa Kantari ekimen taldeak antolatuta, maiatzaren 22an, larunbata, Baionan egun-pasa egingo da, aprobetxatuz egun horretan dela *Baionan Kantuz* kantu-jira. Hain zuzen ere, Baionan hilero laugarren larunbatean egiten dute kantu-jira (orain 13 urte hasi ziren) eta Tolosa Kantari ekimen taldeari egokia iruditu zaio Baionako kantu-jira ikustea eta bertan abesten parte-hartzea.

Ondorioz, Tolosa Kantari autobus antolatu du maiatzaren 22rako. Txartela, 15 euroren trukean, Tolosako Errementari kaleko Xirimiri kafetegian eskuratu daiteke.

Bazkaltzeko, bakoitzak bere jakia eraman behar du eta edariak antolatzaileek eramango dituzte autobusean. Kantuan ibili eta gero, bazkaltzeko toki egoki bat egongo da prestatuta Baionan.

Informazio gehigarria

Baionako kantu-jira hilero laugarren larunbatean egiten da eta Tolosako, berriz, azken larunbatean. Hori dela eta, hilabete gehiengotan koitziditu egiten dute. Baina aurtengo maiatzak bost larunbat dituenez, aukera zegoen Baionara joateko; Tolosako kantu-jira, azken larunbatean egiten denez, maiatzeko bosgarren larunbatean izango da.

» EGITARAUA

'Baionan Kantuz', hilak 22

- **09:00etan.** Tolosako tren geltokitik autobusa irtego da.
- **11:30ean.** Kantu-jira Baionan.
- **14:30ean.** Bazkaria Baionako atsedean leku batean.
- **16:00etan.** Baiona ikusi eta kantuan ibili.
- **19:00etan.** Tolosara itzultzeko autobusa hartuko dute.

Galtzaundi ludotekarako begirale bila dabil

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak uztailaren 1etik 30era burutuko duen ludotekarako begiraleak bilatzen ari da. Interesatua egon ezkerro jarri harremanetan beraiekin 943 65 50 04 telefonora deituta, edota Nafarroa etorbidea 6 behea (20400 Tolosa) helbidera Curriculumak bidalita.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 laguntzizko bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzue aukeran.

HARREMANETARAKO:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean, Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

HERRI URRATS!
MAIATZAREN 9a
JENPERE

HERRI URRATS, IPARRALDEKO IKASTOLEN EGUNA
Zuk ere urratsak egin, hainbat eman beste 2 ikastola eruki ditzaugu Iparraldean! haugi, zator, jin, etor, haugi, zator...

Emakume gazteei feminismoaz eztabaidatzeko deia egin diete

Jardunaldiak » Hernanin asteburu honetan Euskal Herriko Emakume Gazteen Topaketak izango dira.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, hilak 7, 8, eta 9, Euskal Herriko Emakume Gazteen Topaketak izango dira Hernanin eta Tolosaldeko ordezkariak bertan izango dira.

Joan aurretik informazioa jasotzeko ere jarri dute hitzordua; gaur bertan izango da 19:30ean Tolosaldeko kultur etxean. Hernanira guztiak batera joateko ere jarri dute hitzordua: ostiralean, maiatzak 7, 15:00etan elkartuko dira tren geltokian eta larunbatean, maiatzak 8, aldiriz, 09:00etan tren geltokian. Izan ere, «Tolosaldeko emakume gazteei asteburu honetan Hernanira joan eta feminismoaz eztabaidatzeko» gonbita luzatu diete.

Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak oinarrian

Euskal Herriko Emakume Gazteen Topaketetan «lehen harria» duela bi urte, 2008an, jarri zuten, Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministetan, hain zuzen. «Hitzordu horren harira, Bilboko Kukutzta

Topaketak Hernanin izango dira asteburu honetan; hilak 7, 8 eta 9

Gaur banatuko dute jardunaldien inguruko informazioa 19:30ean Tolosaldeko Kultur Etxean

gaztetzearan egindako asanbladan gazte ikuspegi batetik feminismoa nola landu aztertzeke dinamika jarri zen martxan. Bertatik dator Emakume Gazteen Jardunaldiak antolatzeke ideia», argitu dute antolatzaileek.

Topaketa hauen helburu nagusietako bi, egungo feminismoaren erronkak emakume euskaldun eta gazte ikuspegitik lantzea eta Euskal Herriko neska gazteek egunero borrokatzen duten feminismoaren agertoki bihurtzea direla ere argitu dute. «Emakumeon egoera latza izanik ere, borroka feminista gazte, errebelde eta alai baterako deia egin nahi da topaketa hauetan. Hortik, aukeratu den leloa: 'Kuleroak burura eta salto munda'». Hiru egun hauetan landuko diren gaien artean, besteak beste, «identitateak, indarkeria, sexualitate eta Euskal Herriko mugimendu feministaren historia» izango dira.

Sukaldeko olioaren gaikako bilketaren balantze «oso positiboa» egin dute

Birziklatzea » Lehen datu ofizialek 2010eko lehen hiru hilabeteetan joan den urtean jasotako olio kopuru bera jaso dela diote.

ERREDAKZIOA

«Inolako zalantzarik gabe, sukaldeko olioaren gaikako bilketaren ohitura errotzen ari da Tolosaldeko biztanleen ohitura iraunkorren artean», argitu dute, irmo, Tolosaldeko Mankomunitateko arduradunak.

Izan ere, sukaldeko olioaren gaikako bilketan orain arte bildutako datuekin 2010. urteko datuak 2009koak baino %250 handiagoak izatea espero dute. «Bestela esanda, aurtun Tolosaldeko biodiesel bilakatuko ditu 75.000 litro

Aurtun Tolosaldeko 75.000 litro sukaldeko olio erabili bilakatuko ditu biodiesel

sukaldeko olio erabili, eta ez dugu ahantzi behar horiek Sasietako zabortegean galduko zirela», argitu dute.

Herritarren parte hartzea eskertzen dute, era berean, Tolosaldeko Mankomunitateko kideek, izan ere eurak gabe «alferrik izanango zen» sukaldeko olio biltzeko abiarazitako kanpaina.

«Herritarrek gabe ezinezkoa izango zen Tolosaldeko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunko-



61 edukiontzi jarri dituzte eskualdean. E. EZEIZA



6.000 inbutu ere banatu dituzte. A. IMAZ

rerako Sailak beren laguntza ematea 61 edukiontzi jartzeko, eskualdeko 28 udalerritan banatuak, eta abenduaren hasieratik aurrera eraman den kanpaina antolatzea», argitu dute.

6.000 inbutu banatu zituzten

Kanpaina horren baitan 6.000 inbutu banatu zituzten etxean olio biltzeko. «Nolanahi ere, ez dugu ahantzi behar oraindik asko dagoela egiteko hondakinen kudeaketan gero eta familia gehiagok ohi-tura hori har dezan», zehaztu dute.

Mankomunitateak eta Ecogra-sek diote zerbitzu honen bidez sukaldeko olio soilik jasotzen dela, hauxe da, frijitzeko erabilitakoa eta kontserbetakoa, eta gogorarazi nahi dute olio edukiontzietan uz-

terakoan ontziek oso ongi itxita egon behar duela; brik moldekoa, edo beira nahiz plastikozkoa izan daitekeelarik ontzia.

Sariak

Kanpaina hasterakoan iragarri moduan sukaldeko olio birziklatzen dutenen artean sariak ere bazi-

» IRABAZLEAK

- Lidia Cornago Lecuona (Tolosa).
- Miguel Angel Hernandez Gonzalez (Andoain).
- Francisco Javier Goya Rajado (Añoeta).
- Encarni Garmendia Mendiburu (Orendain).
- Maite Amundarain Goikoetxea (Berastegi).

natu dituzte. Kanpaina hasi zenetik 2010eko martxoaren 31 bitarte, data horretan eman baitzen amaitutzat kanpaina, azalean telefono zenbakia idatzia zuten Tolosaldeko ontziak jaso zituzten olio birziklatzeko plantan. Hauen artean bost lagunek landa etxe batean bi lagunentzako asteburu pasa irabazi dutelarik.

«Horrenbestez, gaikako bilketa honetan parte hartu duten herritarrei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, eta gainerakoak animatu nahi ditugu laster has daitezen modu erregularrean eta jakitun olio biltzen, gure Ingurumena hobetzen lagundu nahi badugu, alferrik galdu ezin dugun eta galduta behar ez dugun baliabidea baita sukaldeko olio», argitu dute mankomunitateko arduradunak.

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.
ORDUA: arratsaldeko 16:00etan.

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: EHUren Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aularioan, 11. gelan.
ORDUA: eguerdiko 12:00etan.

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIAREN Gasteizko egoitzan: Bizenta Mogel 6, behea.
ORDUA: goizeko 09:30ean.

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIAREN Iruñeko egoitzan: Irabeko monasterioa, 45. eskuineko eskailera, 13. ezkerre.
ORDUA: goizeko 10:00etan.

Probara curriculuma ekarri behar da

K Emaitzak

PILOTA

Banakako Txapelketa Nagusia

LIGAXKA

Oinatz Bengoetxea 22

Abel Barriola 13

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa, itzulerakoak

TOLOSA-AZPEITIA

Kadeteak 22-15

Jubenilak 6-22

Nagusiak 10-22

ALEGIA-AZKOITIA

Kadeteak 18-22

Jubenilak 22-6

Nagusiak 8-22

ALBIZTUR-DONOSTIA

Kadeteak 22-15

Jubenilak 1-22

Nagusiak 9-22

AMEZKETA-HERNANI

Kadeteak 8-22

Jubenilak 16-22

Nagusiak 22-18

Hurrengo asteburuan itzulera-ko partidak jokatuko dituzte etxetik kanpo Tolosak, Alegiak, Amezetak eta Albizturak.

Antiguoko Txapelketa

KADETEAK

Gallastegi 20

Anartz Olano (Aurrera) 22

Irurtzungo Txapelketa Finalak

KADETEAK

Anartz Olano-Tolosa (Aurrera) 22

Karlosena-Andueza 16

ALEBINAK

Jon Lezea-Salaberria (Aurrera) 18

Garcia-Mariezkurrena 14

Iruritako Emakumeen Paleta Goma Txapelketa

HELDUAK

Iera Agirre-Saioa Aristorena 30

Judith-Maite 24

Añorgako Txapelketa

KADETEAK

X. Jaunarena-M. Hernandezena 18

Mina-Apeztegia 15

INFANTILAK

Xabi Zubiria-A. Gartziaarena 18

- 1

Federazio Torneoa SENIORRAK

Jon Jaunarena (Nafarroa) 22

Unai Onsalo (Andaluzia) 14

Matienako Txapelketa Finala

KADETEAK

Anartz Olano-Artola 22

Sarasti-Imaz 10

Lizarrako Txapelketa

BENJAMINAK

Goikoetxea-Hernandorena 8

- 18

Nafar Jokoak

INFANTILAK

Julen Goikoetxea-Mikel Eraso 14

Erreka B 18

FUTBOLA

Erregional Ohorezko Maila Tolosa CF-Beti Gazte 1-0

SAILKAPENA

1. Zarautz (66 p.); 2. Pasajes (59p.); 3. Aurrera de Ondarroa (59 p.); 4. Tolosa CF (54 p.)

1. Erregionala Igoera Fasea

Amaroz-Alerru 1-2

SAILKAPENA

1. Kostkas-Miren Bihotza (34p.); 2. Mariño (34p.); 3. Alerru (32p.); 7. **Amaroz (11p.)**

Trintx.-Azkuene-Intxurre **KKE** 2-5

SAILKAPENA

1. Irun (41p.); 2. Sto. Tomas Lizeoa (36 p.); 3. Mondragon (28p.); 4. **Intxurre (26 p.)**

ARETO FUTBOLA

Nazional A Maila Lauburu KE-Sasikoa 1-1

SAILKAPENA

1. Zierbana (61p.); 2. **Lauburu KE (59p.)**; 3. Zalatambor Area 99 (57p.)

Nazional B Maila

Laskorain Ikastola-**Inter** 4-3

Transp. Lakunza-Zarautz 0-5

SAILKAPENA

1. Alerru Algeposa (63p); 2. **Laskorain Ikastola (61p.)**; 3. Concepto-Creatch (56p); 10. **Transportes Lakunza (31p.)**

SASKIBALOIA

Bigarren maila, jaitsiera fasea

Bide Bide Ibiza Take 63

Urdaneta 52

SAILKAPENA

1. TAV Baskonia Fundazioa (10-6); 2. Easo Pastas Arruabarrena (10-6); 3. **Bide Bide Ibiza (10-6)**.

DUATLOIA

Amorebieta-Etxanoko I. Duatloia

SAILKAPENA 2:13:50"

1. Itsaso Leunda

ZIKLISMOA

Ordoñanako Eskaldun Trofeoa

SAILKAPENA

1. **Itsaso Leunda** 02:10:16"

2. Letizia Galan 02:11:40"

3. Cristina Alcalde 02:11:40"

4. Ane Santesteban 02:11:40"

5. Ortiz Sara 02:11:40"

6. Ana Usabiaga 02:11:40"

7. Irene San Sebastian 02:11:40"

8. Cristin San Emeterio 02:11:40"

Ibarrak berdinketa, Laskorainek garaipena eta Lakunzak porrota

Areto futbola » Ibarrak eta Laskorainek bigarren postuan jarraitzen dute. Transportes Lakunza berriz 10. aurkitzen da.

ra. Txapelkun gelditzeko ametsak indarrean dirau beraz.

Ondo zekiten etxekoek Interren aurkako neurtzeta ez zela batere erraza suertatuko, denboraldi amaieran jaitsiera eragozteko lanetan ari diren aurkariak oso arriskuak izaten baitira.

Puntu premigorriak estututa in-txaurrendotarrak kementsu kant-xaratu ziren Usabalgo beheko kantxara, Ikastolakoak goian presionatuz irten ziren, ustekabean, eta lehenengo bi aukeretan bina gol sartu zituzten: 0-2.

Jokoaren ekimenaren ezin harturik eta markagailua maldan gora, horitxoek minutu latzak igaro behar izan zituzten jarraipenean baina bapoz sufritzeaz gain gutika gutika partidaren jabetza hartzeko gai izan ziren. Honela, atsedenaldira aurretik Landerrek 1 eta 2-ko itzaropentsua sareratu zuen eta aldageletatik bueltan Gil *TDI*-k binakoa.

Interrekoak jada atzealdean pilatu eta kontraerasora irtertera mugatzen zirenean ordea, binakoaren ondoren, hirugarrena egiten asmatu zuten eta azken 15 minutuetan zuten guztia ipini behar izan zuten horitxoek berriro; Barriola kapitaina ikutuak minutu

batzuz berragertu behar izan zuen bere txonkatila arriskatuaz eta defentsak zoratzeko ahalmen berezia duen Elola piboteak ia minutu guztiak jokatu zituen.

Azken hau izan zen hain zuzen, Landerrek in batera, garaipena bideratu zuena. Hirunako berdinketa Lander *Starskyk* sartu zuen Elokak bizkarrak zapal dutako baloi bat aprobetxatuaz eta 4-3-koa berriro Elola *Huthek* Landerrek bigarren zutoinera sartutako baloia gutzatuaz. *Starsky* eta *Hutch* bikote ahaztezina Usabalen.

Garaipena baina oraindik ez zegoen zakuan eta are eta gutxiago bi minuturen faltan baloia eskuaz jokatzeagatik epaileek Murgi egotzi zutenean. Puntuen balioaz jabe, atezain eta hiru jokalarirekin horitxoak ez ziren kokildu eta abantaila eustez gain bosgarrena ere egin zuten, Endikaren sake luze bati eskerrak Gil *TDI* izan zelarik golegile, bere ezizenaren zergatia erakutsi zuten indar harrigarriko lasterketa baten ostean.

Oso pozik irten ziren Usabaldik Javi delegatua, Jorge, Javi eta Imanol prestatzaileak eta Endika, Gil, Murgi, Lander, Otxoa -haserako bosteko- Txiki, Telleria, Elola, Barriola eta Aratz jokalariek.

H Hilberriak

JOXEAN ORMAZABAL BERSATEGI JAUNA

Maiatzaren 2an hil zen, 61 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goianbego-

Emaztea Ana Zabala Lizarrabar, semeak Txoan, Iatsu; anai-arrebak Inavita, Julian (1), Beñen eta Javier Itiguz; ia Felixa; ilobak: Ainara, Maitin ezkon anai-arrebak, lehengusua eta gainerako ahaiak. Haren animaren alde otolitz bat eskaltzen dizute eta arren eltor zaitezela GAUR ASTEARTEA arratsaldeko SEIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN

2010eko maiatzaren 4ean

JOXEAN ORMAZABAL BERSATEGI

Oholtzako gai esatari, gelan ipuin kontalari, goieritarro txukundu diguk hamaika atari gertatua gertakari aspaldiko zerbitzari aitormen hitzek lagun bekie ahots galduari.

Ezin ahaztu eskaini diguzun laguntza oparoa. Adoniko gabe, laster arte!

GOIERRI

2010eko maiatzaren 4a

Argi Berri elkarte eta Goierriko Bertso Eskola

VERÓNICA CAMARERO FERNÁNDEZ

Asteburua heltzear zela zer susto ta zer zirrara, Verok albotik alde egin digu isil-isilik, sigi-saga; halako lagun bat ezin baita ahanzturen kutxan laga, Emakumea Pilotaririk gogor saiatuko gara zure irriparra irudikatzen palakadaz palakada.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioko langileak eta Azpeitiko nesken paleta eskolako zure lagunak.

FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN

ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900

Igandean «muga guztiak gainditzera» gonbidatzen du Basurde elkarteak

Berastegi » Lelo hau ardatz hartuta, hilaren 9an izango da herriko taldeak urtero antolatzen duen ibilaldi neurtua.

ERREDAKZIOA

Berastegi, muga-herria izan da historian zehar, baina oraingo honetan muga guztiak apurtzerako aukera izango da. 07:00al aldera aterako dira mendizaleak enparantzatik, eta ondoko ibilbidea egingo dute: Gorosmendi inguru-raigoeta Larre-ren (San Lorentzo) ipar aldetik Mugagara; ondoren, Leitzaran ibaira jaitsiera, aintzina-ko Ollokiegiko burniolaren inguruan; berriz gora, Leitzaran-Urumea isurien mendilerroa, Antxista, Ilintzarbe, Pilotasoro... inguruan; Gainez-gain Azketa, Etxela, Baratzazarreta, Mandoegi, Urepel eta Altxaegi gaindituz, berriz Leitzaran ibaia zeharkatzen Plazaolan; bukatzeko azkeneko zatian, aldapa handirik gabe, Ainzerga zeharkatu eta Berastegira iritsiko dira.

Basurde elkarteak urtero antolatzen dute ibilaldi neurtu hau, eta tarteka aldatetarik egiten dituzte, errepikakorra izan ez dadin, eta jendeak inguru berriak ezagutu ditzan. Igandekoan esaterako, «gainez gain joango dira kirolariak». Hau da, inguru bakoitzeko puntu altuenetara joan beharko dute, eta ez magaletik igaro. Izan ere, antolatzaileen esanetan, «askotan, jendea goraino ez da igotzen eta hau pena da». Hori dela eta, zenbait



07:00etan herriko plazatik abiatuko dira mendizaleak; izen-ematea hor bertan egin beharko da. IVUYA URRUTIA

kontrolgune hor kokatuko dira.

Ibilbideak, orotara, 30 kilometro eta 62 metroko luzera du. Punturik altuena 1.054 metrotarako katuta dago, eta bajueña, 227ra. Honenbestez, metatutako altuera iguera: 1.898 metrokoa da, eta jeitsiera 1.901ekoa.

Parte hartu nahi dutenek, igandean bertan, ibilaldia hasibaino orduerdia lehenago, plazan bertan egin ahal izango dute, bost euroren truke. Bestalde ohikoa den bezala, ibilbidean zehar janaria eta edaria ez da faltako. Ollokiegi, Etxela, Hirunugata eta Plazaolan jarriko dituzte postuak.

Oparien zozketa bukaeran

Etxera esku hutsik ez joateko, ibilaldia amaitzean, babesleek eskainitako zenbait opariren zozketa egingo da proba amaitu duten mendizaleen artean.

Aipatu bezala, 07:00etan herri-

ko plazatik abiatuko dira mendizaleak, eta amaitzeko ere, hara itzuli beharko dute. Ibilaldian zehar jartzen diren kontroletatik igaro behar dute derrigorrez parte hartzen duten guztiak. Kontrol lekuak hauek izango dira: Mugaga, Ollokiegi, Pilotasoro, Altxaegi. Anoa-postuak berriz, Ollokiegi, Etxela, Irunugata, Plazaola zubia.

Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen istripuen nola sor daitezkeen kalteen erantzule egiten. Dena den, ibilaldian zehar zenbait zerbitzu izango dira: Gurutze Gorria, ura eta zenbait elikagai.

Nabarmentzekoa da, inguruak txukun mantentzeko ibiltari bakoitzak sortutako hondakinak norberak eramatea eskatzen dutela antolatzaileek.

Helduek ez ezik, hala ere, haurrek ere aukera paregabea izango dute igande honetan inguruko mendiak ezagutzeko. Izan ere, Be-

» ZENBAIT DATU

XVIII. MENDI IBILALDIA

- **Eguna.** Maitzak 9, igandea.
- **Ordua.** 07:00.
- **Iraupena.** 6-8 ordu.
- **Gogortasuna.** Ertaina.
- **Kokapena.** Berastegi, Leitza eta Elduain zeharkatzen ditu.
- **Luzera.** 30,62 kilometro.

asti guraso elkarteak antolatuta, Txikien Ibilaldia ere izango da. Mendizale guztiak 09:00etan abiatuko dira, baina bi ibilbide izango dituzte. Txikiak plazatik abiatuko dira, eta ondoren, Gorosmendi eta San Lorenzozik igaroko dira, berriz, erdigunera itzultzeko.

Handixeagoak direnak berriz, toki beretik abiatuko dira, baina gero, Gorosmendi, San Lorenzo eta Muga zeharkatuko dituzte, eta plazan bukatu.

Umeen bazkaria antolatzeko bilera, gaur

Alkiza » Aurten jaien baitan, ekainaren 3an ospatuko dute Haurren Eguna; honetaz hitz egingo dute gaur 18:00etan.

ERREDAKZIOA

Hilabete bat besterik ez da falta Alkizako jaietarako, eta jada, antolakuntza lanak nahiko aurreratuta dituzte. Hala, ume eta gaztetxoen bazkariak hitz egiteko bilera deitu dute gaurko.

Ekainaren 3an, Haurren Eguna ospatuko dute herriko festetako egitarauaren baitan. Egun horretan, umeengan bereziki pentsatuz, prestatzen dituzte ekitaldiak.

Iaz, estreinakoz, ume eta gaztetxoek bazkaria ospatu zuten, eta arrakasta handia izan zuen, 121 lagun bildu baitziren bertan. Orain, ekimenari jarraipena emateko asmoz, gurasoei dei egiten diete, antolakuntzan laguntzeko. Gai honen inguruan mintzatuko dira gaur 18:00etan, udaletxean egingo duten bilkuran.

Behar Zana elkartek 64 urte beteko ditu aurten

Villabona » Ospakizunen baitan, ekainaren 5ean egingo den afarirako eta danborradarako izena emateko epea zabaldu dute.

ERREDAKZIOA

Behar Zana kirol elkartek 64 urte betetzen ditu aurten. Hala, urtero bezala, jai handi batekin ospatuko dute bertako kideek urtemuga. Festa ekainaren 5ean eta 6an izango da.

Elkartearen urteurrena ospatzeko, ekitaldien baitan, afaria antolatuko dute. Honenbestez, bertan parte hartu nahi duten bazkideek, egoitzan bertan jarrita dagoen zerrendan eman dezakete izena. Horretarako azken eguna ekainaren 3a izango da.

Bazkide direnek jada eman dezakete izena, baina gainontzekoek hilaren 24ra arte itxaron beharko dute. Era berean, afalostearen egingo den danborradan parte hartu nahi dutenek, epe horiek errespetatuz eman ahal izango dute izena.

L Laburrak

Ezohiko Osoko Bilkura egingo du bihar Udalak

VILLABONA » Bihar arratsalderako Udalak ezohiko osoko bilkura deitu du. Batzarra 20:00etan izango da, udaletxeko batzar aretoan. Bertan, aurreko bilkurako akta onartzeaz gain, Villabonako Zahar etxerako gauzatzeko proiektua izango dute hizketagai.

Udalaren Ohiko Osoko Bilkura izango da gaur

ALKIZA » Gaur iluntzean Ohiko Osoko Bilkura egingo du Udalak. Batzarra udaletxean izango da, 20:30ean. Besteak beste, hainbat obra baimenen eskaerak; diruzaintzaren ordezkoren izendapena; eta EAeko Tokiko iraunkortasunerako konpromisoari adierazitako atxikimendua onestea izango dituzte hizpide.

Herriko festak antolatzeko bilera bihar 19:00etan

ANOETA » Bihar asteazkena 19:00etan udaletxean herriko festak antolatzeko bilera egingo dute. Jai batzordeak heritar oro gonbidatzen ditu parte hartzera.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

| |
|---|
| OSASUNA. |
| Alegialdea. Osasun z.: 943 653212 |
| Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 943 65 23 39 |
| Asteasu. Medikua: 943 692423 |
| Baliarrain. Medikua: 943 889003 |
| Berastegi-Elduain. Medikua: 943 683361 |
| Bidegoian. Medikua: 943 681134 |
| Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411 |
| Ikaztegieta. Medikua: 943 653329 |
| Izura. Osasun zentroa: 943 690720 |
| Leitza. Osasun z.: 948 510800 |
| Orendain. Medikua: 943 655595 |
| Orexa. Medikua: 943 682228 |
| Tolosa. |
| Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111 |
| San Esteban: 943 006800 |
| Gernikako arbola: 943 006900 |
| Amarozko dispen: 943 672637 |
| Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia) |
| DYA: 943 672536 |
| Gurutze Gorria: 943 674888 |
| Villabona. Anbulat.: 943 006970 |
| Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930 |
| GARRAIOAK. |
| Renfe: 902 24 02 02 |
| Donostiako autobusa: 943 361740 |
| Tolosalde bus: 943 650621 |
| Leitzaran autob. : 948 221015 |
| Taxia: 943 670420 |
| Taxia (Leitza): 608 873016 |
| BESTERIK. |
| Ertzaintza: 943 538820 |
| Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858 |
| Tolargi: 943 650016 |
| Iurraremendi egoitza: 943 670325 |
| Tolosa gasa: 943 675320 |
| Alkoholiko anonimoak: 943 248474 |



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

- **Anoeta.** Ekainaren 3an izango den Umeen Eguna antolatzeko bilera egingo dute udaletxean 18:00etan.
- **Anoeta.** Herriko festetan, herriko artistek eskulanetako ikastaroen egindako lanak ikusgai jarri nahi ditu Udalak. Erakusketan parte hartzea eskertuko lukete antolatzaleek eta horretarako bilera antolatu dute 17:15ean udaletxean.

Hitzaldia

- **Tolosa.** Emakundeko Oier Alvarzek *Heziketa, berdintasunerako espazioa* izeneko hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 20:00etan, Berdintasunaren aldeko I. Astearen baitan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo Kalea, 2. 943 67 0128.
- **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 43. 112.

» IRRATIA

Txolarre Irratia (FM 107.5 eta 101.2)

- 11:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia. **12:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Magazina (Quark saioa + beste).
- 13:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30.** Info 7: Egurdiko albistegi nagusia.
- 14:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia. **16:00.** Arrosa: Celosamente Gordea (HBI). **17:00.** Kabitx plazara. **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Magazina (errep.). **19:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia (errep.). **20:00.** Info 7: Iluntzeko albistegi nagusia.
- 21:00.** Mintzatzen.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aurki jakingo dugu zeintzuk diren XI. HITZA Argazki Lehiaketako hiru irabazleak. Zortzi argazki finalistak igande honetan bertan argitaratuko ditugu, eta ondoren bozkatzeko epea zabalduko dugu!

Arrantzaleak protagonista



TOLOSA • Bidarteko labarretan ateratako argazkia bidali du Malcorrak, atzean Jaizkibel ikusi daiteke. IDOIA MALCORRA



TOLOSA • Gonzalezek Capbretongo itsas murruan ateratako argazkia bidali du, «bertako hainbat arrantzale bitzen da ilunabarreror», argitu du. ERLANTZ GONZALEZ

A Agurrak



Zorionak Pello eta Gari!



Urte askoan!

Urki Artola Amundarain (Tolosa). Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____